

Ikerketa klinikoetan aldaketa esanguratsuak egin ditu **NIHk**

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute · Elhuyar Zientzia



Urte-hasieran, biomedikuntzako ikerketak finantzatzeko politika aldatu du AEBko Osasun Institutuak (NIH). Ikerketa klinikoetan gardentasuna, zehaztasuna eta errepikakortasuna lortzea du helburu. Berez AEBko ikerketei bakarrik eragingo badie ere, pentsatzekoa da joera zabalduz joango dela.

Eztabaida aspalditik zegoen, eta NIHk ikerketetan gardentasuna bermatzeko neurriak hartzea erabaki du jada. NIHk finantziatuko dituen ikerketek orain arte baino [baldintza zorrotzagoak](#) bete beharko dituzte aurrerantzean: berritasunetako bat da ikerketaren emaitza guztiak argitaratu beharko direla, emaitzen argitalpen selektiboa ekidin eta ez daitezen emaitza negatiboak ezkutatu. Bestetik, erabiliko diren protokolo klinikoak aurrez erregistratu beharko dira. Neurri honen helburua da entseguok ondo diseinatuta egotea eta ikerketak planteatzen duen galderari erantzuteko nahikoa balio estatistikoa baduela ziurtatzea. Gainera, gerora emaitzak aldizkari zientifiko batean argitaratu nahi direnean, ezingo dira entsegu klinikoak *birdiseinatu*, ikertzailerei erakustea komeni zaienaren arabera.

NIHk [ClinicalTrials.gov](#) webgunea sortu du entsegu klinikoak erregistratu eta haien emaitzak jasotzeko. NIHren ustez, bi neurriki zientzia irekiaren helburu filosofikoak betetzen dituzte, eta zientziaren errepikakortasunaren egungo krisiari aurre egiten lagunduko dute. Izan ere, NIHren esanetan, presio akademiko eta sozialek zientzia kaxkarra egitera bultzatzen dute, aldizkariak ondorio ikusgarri eta positiboak argitaratu nahi baitituzte. Besteak beste, kalkulatzen da [ikerketa klinikoaren herena eta erdiaren artean ez dituztela emaitzak modu egokian argitaratzen](#), eta horren arrazoi nagusietako bat da ez dituztela argitara ematen emaitza negatiboak.

Neurriki entsegu kliniko gisa definitutako ikerketetan bakarrik hartuko dira, baina NIHk haren definizioa aldatu du. Hemendik aurrera, *entsegu kliniko* terminoak bere barnean hartuko du gizakiekin egi-

ten den edozein ikerketa, baita orain arte oinarrizko ikerketa gisa hartu direnak eta giza jokaera ikertzen dutenak ere. Osasunerako Mundu Erakundeak urte asko daramatza osasunaren definizio zabal baten alde egiten, alderdi fisiko, mental eta sozialak bere barnean hartzen dituena. NIHk ere bere egin du definizioa. Behaketa hutsezko ikerketa ez-eskuhartzailleak bakarrik geratuko dira definizio horretatik kanpo.

.....

Emaitza guztiak argitaratu beharko dira, baita negatiboak ere

.....

Azkenik, gizakien parte-hartze esperimentalak eskatzen duten ikerketetan, ziurtatuko da [generoa, arraza, etnia eta adina bezalako aldagaiak](#) kontuan hartuko direla. Are gehiago, ikertzaileek [praktika kliniko onetan](#) formatu beharko dute, hiru urtetik behin; besteak beste, parte-hartzaileen eskubiak, segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen. Izan ere, NIHren ustez, ikerketan parte hartzen duten pertsonen arrisku ezagun eta ezezagunak hartzen dituzte, zientziak osasunaren eta gaixotasunen ulermenean aurrera egin dezan.

Komunitate zientifikoaren zati batean hautsak harrotu diren arren, neurriak aurrera doaz. Ikusteko dago nola eragingo duen horrek guztiak European, eta hemen ere hartzen ote diren entsegu klinikoetan gardentasunaren alde egin nahi duten antzeko neurriak. ●